

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Juan de Aranoa 9 helbidean kokatuta dagoen eraikin higiezina birgaitzeko jarduketa bakana, irisgarritasuna bermatzeko jabari eta erabilera publikoko lurzorua okupatuz. Hasiera batean onestea. Esp. 202004S349

Amurrioko Udalbatza Osoak 2020ko irailaren 24an eginiko osoko bilkuran erabaki zuen hasiera batean onestea Juan de Aranoa 9 helbidean kokatuta dagoen eraikin higiezina birgaitzeko jarduketa bakana, plataforma bertikal bat jartzeko. Horretarako, jabari eta erabilera publikoko 1,19 m² hartuko dira, baina ez dio kalterik eragingo ez oinezkoen bideari, ez hiri-irisgarritasunari.

Lurzoruari eta hiri-birgaitzeari buruzko legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Errege Legegintza-Dekretuaren 24. artikuluan aurreikusten dena betetzeko, aipatu espedientearen jendaurrean ikusgai jarriko da Amurrioko udaleko hirigintza sailean, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn agertzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, interesdunek azter dezaten eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazio eta oharrak aurkez ditzaten.

Amurrión, 2020ko azaroaren 3an

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA